

EUSKERA ABERASTU

Gure euskera garbitu eta aberastu egin bear dogu.
Zenbat esaera-zar, ain politak, bitxiak eta biziak galdu doguz.

Emen dakardazan esaldi geienak Azkue-ren iztegitik artu dodaz.

Batzuk, bizkaierara moldatzeko, apur bat aldatu egin dodaz.

Errezenak eta politenak bakarrik artu dodaz.

Abade = sacerdote, cura.

“Abadearen lapikoa, txikerra baiña gozoa”.

Adarra = cuerno, rama.

“Adarrez dator euria”. Llueve a cántaros.

“Adarra jo”. Tomar el pelo. (Baztertu daigun betiko “ulea artu”).

Adi = estar atento.

“Adi, adi, ze Jaungoikoa dagok adi”. Ten cuidado, que Dios te mira.

Adiskide = amigo.

“Adiskideari mailleatu, adiskidea galdu”. Prestar al amigo, perder el amigo.

“Adiskide andia” dala esateko, esaizu “adiskide mamia”.

Adiskidetu = reconciliarse, hacer las paces.

“Adiskidetuko dira, oilloak arrautze baltza egin baiño leenago”. Con el tiempo ya se reconciliarán, antes de que una gallina ponga un huevo negro.

Adu = suerte. “Adu onekoa”. De buena suerte. “Adu txarekoa”. De mala suerte.

“Adu gaiztoa, ardotan ito”. Da mala suerte ahogarla en vino.

“Zugatz bakarra eta alaba bakarra, adu txarra”. Arbol solitario e hija única, mala suerte.

Aga = viga, columna.

“Agea dauka etxe onek”. Esta casa tiene casta, es de buen linaje.

“Zeruak ez dau agerik bear”, esaten jako, soloan eta lanean, zutunik, alperkerian dagoenari. El cielo no necesita columna (para sostenerse).

Agin = diente, muela.

“Gazte oneri agiñak bardindu jakoz”. A este joven ya le ha entrado el juicio. Ya le ha salido la muela del juicio.

Agindu = mandar, prometer, permitir.

“Nire barruak ez deust agintzen”. No me permite mi conciencia.

“Agintzazko urea baiño, emondako zilarra obea”. Mejor es plata recibida, que oro prometido.

Aize = viento.

“Ze aize dauka orrek”. ¡Qué garbo tiene ése!

“Aizea buruan, eta ibilli munduan”. Buru-ariñagatik esaten da.

(Jarraituko dau)

GOIKOETXEA'TAR INAKI

